

Funtsezko Baliabideak:

Enpresaren jarduerak aurrera ateratzeko hainbat baliabide beharko ditugu. Horregatik, sailkapen txiki bat egin dugu hasiera batean enpresa martxan jartzeko beharko dugun horrekin guztiarekin:

- Baliabide fisikoak: Tailerra, bertako erremintak eta web orria nahiz erosketak kudeatzeko beharko dugun talde informatikoa, hots, telefono mugikorra eta ordenagailua.
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Web orria bera nahiz hau kudeatzeko abilezia, antolakuntza osoa eta salmentak gauzatzeko gaitasuna, diru kudeaketarako abilezia, patentea eta muntaketa prozesua aurrera eramateko ezagutza.